

## Hezkuntza Akordioa: baliatu dezagun aukera eskola publikoa ardatz izango duen hezkuntza hitzarmena erdiesteko

**2022ko urtarrilaren 24an publiko egin zuen dekalogoan oinarrituriko ekarpenak aurkeztu dizkio LABek EAEko Hezkuntza Akordiorako oinarriak ezartzen dituen zirriborroari.**

LABek beharrezkotzat jotzen du Euskal Herrian oro har eta zehazkiago EAEn Hezkuntza Akordio zabal bat egitea. Azken hamarkadetan euskal hezkuntzan sortu diren arazo eta arrakalak gainditze bidean jartzeko beharra eta aukera dagoela uste dugu. Eta ikuspegi horretatik ari gara egiten gure ekarpena.

Zehaztasun maila handiagoa eskatzen badute ere, Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako zirriborroan badira norabide egokian kokatzen diren hainbat kontu, hala nola, kuotak desagertzeko asmoa, euskalduntzearen aldeko borondatea edota herri mailako eskolaratze eta planifikazio batzordeak sortzea esaterako.

Hala ere, hezkuntza hitzarmenaren helburu nagusiak gehiago definitu behar direla uste dugu. Hainbat puntutan interpretazio desberdinei atek irekiak uzten dizkio. Abiapuntua zehaztasun handiagoz definitu ezean, kontrakoak izan daitezkeen bi bide desberdin har daitezke: ituntze-sistemaren kontsolidatu ala egungo eredu duala gainditze bidean jarri. Bigarren hau da LABen apustua: euskal eskola publiko komunitarioko konfluentzian aurrera egitea.

Azkenik, langileei lan baldintzei dagozkion gaiek konprezio handiagoa eskatzen dutela uste dugu. Eredu honetan ere aldaketa sakona beharrezkoa dela uste dugu, hezkuntza lan guztiak aitortu (ik. 4. puntua), lan baldintzen eremuan ere konfluentziarako urratsak emanez eta beharrezkoak diren baliabideak jarritz.

Hona hemen Hezkuntza Batzordearen zirriborroari aurkeztu dizkiogun ekarpen nagusiak:

**1. Eskola publikoaren aldeko jarrera argia izan behar da.** Eskola publikoa erdigunean jarri eta berau ardatz duen hezkuntza-sistema eraikitzeaz aritu beharko litzateke testua, titularitate publikoa eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea uztartuko dituen sare bakarreranzko trantsizio bide gisa. Egundar dagoen eredu dualetik sare bakarrerako bidea egitea planteatzen dugu, konfluentziazatik -eta ez sareen elkarbizitza eta betiketzetik- sortutako bidea eginez. Deszentralizazioan oinarrituriko publikotasun berri batean oinarrituriko litzatekeena.

Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3) hezkuntza sistemaren barruan eta eskola mapetan integratu eta Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna bermatu behar da.

**2. Hezkuntza sistema dualaren oinarrian dagoen kontzertazio unibertsalarekin amaitzeko konpromiso sendoa behar da, kontrol publikoa indartuz:** Hezkuntza-sistema dualaren oinarrian dagoen kontzertazio unibertsalarekin amaitu eta finantziario publikoa jasotzen duten ikastetxeei baldintzak ezartzea egoki ikusten dugu. Batetik, finantziario publikoa jasotzen duen ikastetxeak ezin du kuotarik kobratu, doakotasuna bermatu beharko luke eta bestelako betebeharrak ere bete behar ditu. Segregazio oro gainditu eta inklusiboak izatea, euskarazko murgiltze eredu bermatzea, laikoa izatea, hezkidetzak egiturazko izatea, edota parte hartzea bultzatzea.

Kontrol publiko hori bermatzeko, ez da nahikoa doakotasun erreala edota euskalduntzea bezalako gurariak aurkeztea gero ez badira hauen ebaluazioak garatuko, instituzioen auditoriak eta ikuskaritza propioak behar dira eta testuan agertu behar dira.

Era berean, ikastetxe batek finantziario publikoa jasotzen duenean, horrek nolabaiteko isla izan behar du titularitatean. Honela, trantsizio gisa, baldintza eta betebeharrak izango lituzketen ikastetxe osatutako sistema berria sortuko litzateke eta denak

egongo lirateke udal eta eskualde mailako planifikazio publiko bateratuan txertatuta. Matrikulazioekin dagoen lehiarekin nahiz segregazio joera ororekin amaitzeko, udal mailako planifikazio eta eskolaratze prozedura bateratua martxan jarritz.

**3. Hizkuntza eta hezkuntza-sistemaren curriculumaz:** Zirriborroan aipatzen da euskara ardatz izango duen hizkuntza eredu bakarra ezartzeko asmoa. LABen ustez, zehaztapen gehiago behar da: euskararen murgiltze eta mantentze eredu definitu eta ezarri behar da hezkuntza komunitate osoarentzat 0 urtetatik Lanbide Heziketa bitarte.

Euskal Curriculumaren inguruko gogoeta sakonagoa egin beharko litzateke. Euskal Herriko ondare linguistiko, kultural eta soziala berritzearekin batera, curriculum feminista, berdinzale eta antiarrazista baterako diseinua jaso beharko litzateke.

Programa-kontratuei dagokionez, Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin hezkuntza egitasmoa burutzeko beharrezko dituen baliabideak adostu ditzakeen arren, hezkuntza-sistemak egiturazko curriculuma izan behar du, hezkidetzak, aniztasunaren trataera eta inklusioa, laikotasuna eta euskara eta euskal kultura ikastetxe guztien hezkuntza egitasmoaren oinarri izan behar dira. Klase-sozialen, sexu-generoaren edo/eta arrazializazioan oinarrituriko zapalkuntzei hezkuntzak era integral eta kritikoan erantzun behar die, ezin da hautazkoa izan. Aipatutakoaz gain, mekanismoak ezarri beharko dira programa-kontratuak ikastetxeen arteko lehia sustatu ez dezaten eta segregazio-iturri bilakatu ez daitezen.

**4. Hezkuntzako langileez eta lan-baldintzez:** Irakasleei buruz bakarrik ari da zirriborroa, eta gainontzeko hezkuntza langileak - haur-hezitzaile, heziketa bereziko profesional, jantokiko begirale, sukaldari, garbitzaile, administrari eta atezainak- alboratzen ditu. Langile guztion aitortza ezinbestekoa da, publiko zein azpikontratatu.

Era berean, irakasle-ikasle zein hezitzaile-ikasle ratioen jaitsiera jaso beharko luke testuak, ikasle bakoitzari eskainitako arreta eta hezkuntza kalitatea hobetzeko eta jaiotze kopuruaren beherakadaren aurrean enpleguari eusteko neurri gisa.

Hezkuntza lana eraginkortasunez garatu ahal izateko, ezinbesteko tresnak bermatu behar dituzte instituzioek, besteak beste, langileon egonkortasuna eta kontsolidazioa, azpikontratazioarekin bukatzea, ratioen jaitsiera, etengabeko prestakuntza (lehentasunez: euskalduntze eraginkorrerako estrategiak, ikasle etorkinak eskolan murgiltzeko programak, inklusioa eta aniztasunaren trataera, hezkidetzak, berrikuntza pedagogiak) eta kontziliaziorako neurriak.

Finantziario publikoa jasotzen duen edozein ikastetxek klausula laboral batzuk bete beharko ditu, administrazio publikoaren finantziarioa jasotzeagatik bete beharrekoak:

- Langileen sarbiden aukera berdintasuna bermatzea, hezkuntza-sistemako langile guztiak sarbide bakarra helburu. Sarbide bakar horretan ziurtatu beharra dago gaitasun eta merituetan oinarrituriko hautagai guztien arteko aukera berdintasuna, prozesuaren gardentasuna nahiz kontratazioaren gaineko kontrol publikoa (hezkuntza komunitatearena) eta gainbegiratze sindikala.
- Lan-baldintzak homologatzea eta ekiparazioa.
- Pribatizaturiko eta azpikontrataturiko egiturazko langilerik ez izatea

Euskal Herrian, 2022ko otsailaren 18an